

I R U P E R L A K

IRAKURGAYA

Sigmaringako erri chiki batean bizi ziran senar emazte bi, zorionekoak beren pobrezan, bada amatzen zuten Jaungoikoa, aren aginte santuak gordeaz. Eguerri jaya alderatzen zan, en Groechen eta Hans Witek (oek ziran aen izenak) nai izan zioten *Pazkoa arbola bat* erregalo egiñ Zela beren alaba bakar iru urtekoari.

Gabon eguneko arratsaldean joan zan Hans Wit basora piñu-adar bat ebakitzera jartzeko an zinzilik lazo, lore eta argiak Jesus Aurrak bere jayotzako gabean Zelari bialtzen ziezkan jostalluak. Elur asko egin zuen eta estali zuen kanpo guzia maindire zuri batekin bezela, galduaz estrata eta bide chior guziak. Hans Wit zijoan presaka, gozoro pensatzen bere Zela maiteari prestatzera zijoakion ustekabeko erregalian; baña arri batean oña bat-batean irristaturik, amilka erortzen da beeko erre kara. Amiltzen ikusita bereala juan zitzaizkan iru baserritar laguntzera, alperrik orde, alabaña erre kaku urak ugalde ikaragarri batekin indarturik eraman zuen errukarria Jesus ojuka esaten, eta piñu adarrari laztandurik, bere alabaren azken oroipenari bezela.

Bitartean Groechenek, senarraren luzarapenaz kezkataturik, etzane-razo zuen Zela, aginduaz esnatuko zuela amabiak baño ordu betez lenago Aur Jainkoaren erregaliak artzeko. Zela lo zetzan, amets gozoak egiten añ antsi aundiaz ichedeten zuen Jesus Aurrearkiñ, noiz eta erretore jaunak eta Hans Witen aide batzuek adierazten dioten Groecheni zorigaitz ikaragarria. Ama errukarria erori zan belauniko bere alaba zetzan seaska ondoan, umezurtz esnatzera zijoala asko pensatu gabe Grochenen malkoak zijoazen aurraren arpegira, eta oen

kolpeak irikierazo ziozkaten begiak Zelari. Orduan bere buruchoa alchata, parrairriaz galdetu zion amari:

—¿Gau on alda?—¡Gau char, ene alaba, gau char! saminki amak erantzun zion.

Aurraren, arpegitik alde egiñ zuen batetan parragozoak, jarri zitzaion amari begira, eta kendurik aurretik *Pazkoa arbola* apaintzeko onek eraman ziozkan lurrezko jostallu moldakaitz batzuek, esan zion zakarki:

—*Ez det nai.*

Gero amaren magalean arpegia gorderik, eman zion negarrari, ez aurrak egiñ oi dituzten garrañiak, ezpada persona larriak egiñ oi duten isil eta lantuakiñ. Bere biotz beraak esaten zion umezurtz zala.

Hans Witen eriotzarekin zoriontasuna joan zan betiko Groechenen echetik. Penaren indarrez onen osasuna aitzen zijean, eta nola etzeukan indarrik lanerako, bazekien laister geratu bear zuela gordeta zeuzkan aorru piskak gabe. Auzokoak ikusten zutenean aiñ aul eta argal merkatu plazara joaten, zutik egoteko zerbaiz jakiaeren billan, esan oi zuten:

—¡Groechen ez dago luzaroko!... ¿Gero zer egiñ bear du Zela errukarriak? Oni gorputza azi eta zentzua argitu zitzaion, eta kariñoarekin gozaten ziozkan amari bere penak. Bera zan aurrenekoa eskolan, eta Groecheni bere santuaren egunean aurkeztu ziozkan lotsaz eta begia lurrera begira enkaje polit, eta lanazko galtzerdicho batzuek bere eskuz egiñak.

Bi malko lodi isuri zitzaizkan begietatik alargun tristeari, estutu zuen aurra bere besoetan, eta esan zion belarrira:—Jaungoikoak be-deinka beza zure lana, ene alaba, baña ez aztu egundaño jakinduri egiazkoa dagoela Jaungoikoa amatzean, eta lanik onena dala birtuteak santututzen duena. Zelak gordetzen zituen biotzean amaren itzak, eta aren ejemploak jarraituaz zijean azitzen birtutean, edertasunean bezela. Aren edertasuna zan itzaltzua, illegorria, arpegiko begirune eta modestia aingeru gisakoa eta begi aundi urdiñak ziruditen zeruko parteren bat bazutela.

Bazetorren Zelak aurreneko komunioa egiñ bear zuen denbora. Egun aundiaren beillan joan zan Zela Eleizara bere lagunikin azken irakasdeak erretorearen aotik aditu eta aren oñetan bere konfesioa egitera. Aur aek guziak, lasai bizi ziran nekazarien alabak, prestatzen ari ziran biaramonerako soñeko zuria eta gerriko urdiña. Zela pobreak

bakarrik joan bear zuen oñutsik eta umezurtzen soñeko beliz arabatuarekin. Errukarriak sentitzen zuen zerbait tristura zebilkiola bere biotza betetzen zuten pensamentu santuen artean, suge puzoitsua belardi bateko lore tartean irristatzen dan moduan. Izaturik itzuli zan Ama Birjiñagana, eta eskuchoak gurutzatuta eskatu zion laguntza.

Gau artan oeratzean esan zion amari.

—¡Zeñ gaiztoa naizen, ama! Gaur arratsaldean nai nuen Eleizan, joatea bigar komulgatzera soñeko zuriarekiñ beste aurren gisan.

Groechenek erantzun zion tristuraz:

—Ez da gauza gaiztoa, ene alaba, soñeko zuri bat nai izatea... Besteak dutelako eziñ eramana eta triste jartzea, bai izango litzakeala pekatu.

—Alegere nago ni, erantzun zion Zelak, bere begirada garbia amari zuzenduaz.... ¡Baña zeñ gauza polita dan soñeko zuria, eta gerriko zeru-urdiñchoa!

—Etzaitz lotsatu pobre izateaz ¡ene alaba! esan zion amak, kope-tean musu ematen ziola. ¿Ez dezu ikusten Jesus aurra, zu bezela oñutsik dagoela? Aren tunika morea da, eta gerrikotzat eztauka espartsu soka baizik.

Zelak otoitz egiñ zuen bere aitaren animagatik, eta loak artu zuen soseguz, bere eskuak amarenen tartean jarrita. Ama egon zitzayon beillan luzaro, eta aditu zion ametsetan parra gozoa egiñaz ari zala esaten:

—Jesus aurra ere oñutsik dago, soñeko morea dauka, eta nereza bezela guzia arabatua.

Aurrari iruditu zitzayon ametsetan zeramatela geldi-geldi eche atzean zegoen sagar arbola zar baten ondora. Aren gerri gañean zetzan aur eder bat, aingeruak baño ederragoa. Jantzia zeukan tunika zuriak banatzen zuen argi bizi biziak betetzen ziozkan begiak atsegiñez, batere kalterik egiñ gabe, eta ateratzen zuen asnasaren usaya berri-zan bioletazko kanpo baten airearena baño gozoagoa. Esku-oñetan ikusten zitzaizkan zauri señalearak, eta lepotik zeukan zinzilik urregarbizko edergarri bat iru perlakin, ostrellakari berari koloreak kenduak ziruditena; bata zan berdea, aurrena jayotzen dan belarra bezelakoa, bestea gorria, arri prezioso kazitste sutua bezela, eta irugarrena urdiña, egualdi ederrean zerua egoten dan bezela.

Billaturik Zelak arbolako sagarrik ederrena, belaunikatu eta eman zion Aurrari. Oriek para zion eskua umezurtzari buru gañean bede-

katzeko zorian, eta artu zion parraz eskeintzen zion sagarra. Esku zauritu ark ukitu zionean Zelak uste zuen bere izate guzia aldatu zala Aur Jainkozkoaren izatean, eta soñeko urratua elur gisako tunika zurian, eta bere bular gañean ikusi zuen distiatzen iru perlazko edergarri bat Aurraren lepoa apaiñtzen zuenaren antz oso-osokoa. Denbora berean aditu ziran airean boz eztitu baten kantak arpa soñuaren gisakoak, kantatzen zutenak

Anima justuaren jantzia da

Fede, Esperantza eta Karikadea.

Zelak sentitu zuen biotzean oi ez bezelako atsegiña, eta esnatu zan batetan bere lastozko oechoan; Groechen errukarria zetzan lo aren oñetan, burua aurraren soñeko arabatuaren gañean jarrita. Egun sentiko argi gozoa ikusten zan, eta Eleiz-ezkillak deitzen zuten pesta alegenera, adierazten zituztela goyetan Jaunaren alabanzak.

Zela oartu zan amak ill kolorea zeukala, eta botatzen zuen asna-sea zizpiru gisakoa zala. Tira zion beso batetik, penaz esaten zion birtartean:

—¡Ama!—¡Ama!... ¿Zer dezu?—Ezer ez, onek erantzun zion supitoan esnatuaz. Goazen Eleizara, bada ezkillak deika dagozkigute.

Eta jaiki nayeon, ostera kolpean erori zan bere alabaren oechoan.

—¿Ama, gaizki al zaude? esan zion Zelak, aldamenean belaunikatzen zala.... Gera zaite emen, etzaitetz atera.... Juango naiz ni baka-rrik Eleizara, eta Jesus Aurra datorkidanean esango diot sendatu zaitzala:

Eta au esanda, Zela errukarriak, negar samifiña egiten zuen.

—Ezta ezer, ene alaba! esan zion Groechenek azkenik nolerebait alchatzean, goazen Eleizara, ez det geratu nai nere bizitzako dicharik aundiena gabe. Eta bata bestearen arrimoan joan ziran Eleizara. Au zan umill eta chukuna Sigmaringako biztanleak bezela. Erdian zegoen aldare senzill bat Ama Birjiñaren imajiñari jargoitzat serbitzen ziona lorezko girnaldia eta sortaz inguratua, eta sei zuzi argizaizkoak zeuden erretzen Jaun Sakramentuaren aurrean, Jaungoikoa benetan maite duten animak bere aurrean desegiten diran moduan.

(Bukatuko da.)

MANUEL ANTONIO DE ANTIA.



IRU PERLAK



IRAKURGAYA

(BUKAERA).

Komulgatu bear zuten aurrak zeuden errenkadan aldare aurrean, bakoitza bere soñeko zuri eta gerriko urdiñarekin. Zela joan zan aen artera oñutsik eta soñeko arabatuarekiñ. Begiak lurrera begira eta eskuak bularrean gurutzatuta zerutar bat zirudien.

Irichi zan noiz bat komulgatzeko unea, Pange lingua-ren kantu ederra aditzen zan organoaren soñuarekin batean; eta inzensoaren kea zijoen goronz, aurren otoitzari zeruko bidea erakusten bazien bezela. Zela ere aurreratu zan Jaun aundia artzeko, eta guziak kupitu ziran ikustean nola zijoan oñutsik eta bere soñ beltzarekiñ. Ama ere bere otoitz irazekian begira zegokion: bat batetan zabalduziran alargun tristearen begiak obeto ikusteko moduan, eta bi eskuak eraman zitu en biotzera bizitza guzia ara urbildu bazitzayon bezela. Añ tunika zuriarekin jantzia ikusi zuen Zela Jauna artzen, non onen parean beste lagunen soñeko zuriak amama sareak ziruditen. Urre garbizko edergarriak distiatzen zion bularrean, edergarri artan zeuden zinzilik iru perla, urdiña bata, berdea bestea, eta irugarrena gorria. Grochenek luzaturik besoak aldareronz esan zuen pozez beterik:

—¿Nork jantzi du nere alaba, piztuera ondorean anima bezela? Eta bereala erori zan arpegiz lurrera, beñere geiago ez jaikitzeke. Auzo-etako andre batzuek gorputz ill otza arturik, eraman zuten echera. Zelak Eleizatik irten zanean, etzekien ama illa zanik, dudarik gabe umezurtz errukarri artzaz, Jainkoak ala naita, etzan iñor oroitu. Aur

eder bat zegoen eserita ate aurreko arri gañean, burua zeukan atsedeten bezela gurutze batean, eta illea atze aldera botea partitzen zan bekokian Nazarenoen moduan. Zelak ezagutu zuen aur ura zala ametsetan sagar arbolpean ikusi zuena bera, baña chit beste moduz zegoen jantzia; tunika more zar arabatunk estaltzen zion gorputzchoa, eta gerria estutzen zion espartsu soka zeukan bere lepo guziz zurian jiratua kupida gabe larrutzen ziola. Zela, ura ikustean geratu zan arri eta zur egiñik, eta erreparatu zuen gizon eta emakumeak ondotik igaro eta begiratzen etziotela.

Aurрак ezarri ziozkan Zelari bere begi eder, malkoz beteak, eta galdetu zion biguñki.

—¿Noren billa zabilta, Zela? Nere amaren, Zelak erantzun zion, nola etzekiela belauniko jarririk.—Atoz nerekin, eta billatuko dezu, Aurрак esan zion. Eta gurutzea bizkarrean arturik, isilchorik eman zitzyon bideari. Aur biak zijoazen bata bestearen ondoren menaz eta triste, bata penitenziako tunikarekin, eta bestea ume zurtzen jantzi umillarekin. Bidea zijoan piskaka piskaka estutzen, eta lar eta arantza zorrotzak zulatzen ziezten oñak bi bidelariai. Mutilchoak sufritzen zuen espagabe odola bazerion ere. Zelak kontrara eskuchoak luzatzen zituen bideko arriai eltzeko, eta ateratzen zituen oñazezko oyuskak. Orduan Aurрак bere arpegi ederra umezurtzarengana itzulirik, esan zion mansotasun guziz aundiarekin:

—Para itzatzu oñak nere oñ arrastoetan, eta etzera desalaituko. Zelak egin zuen bere gjariaren onesana, eta oñazeak gorputza minberatzen bazion ere, irmotasunak etzion anima desanparatzen. Noizean beñ Aurra ezkututzen zitzyon, eta Zelak orduan antsiaz beterik jarraitzen zituen aren oñ arrasto odolezkoak, bereala ordea ikusten zuen ostera aurrean, eta sosegatzen zan.

Bat batetan galdu zan baso illun, alde guzietatik ichia zegoen batean. Ichura oneko galai bat zegoen aritz zar batenondoan, irakortzen eskuan zeukan liburua. Farra irri biurriarekin erdi irikitzen zituen ezpañak, eta bere kopeta zimurtuan ikusten ziran gaiztakeriak utzitako señaileak. Ontz aundi batek *ujuju* egiten zuen noizean beñ arbola gañean.

Galayak bota zuen eskutik irakortzen ari zan liburua, eta kiñu gaistoak egiñaz esan zituen arneguzko itzak Jaungoikoaren kontra.

—¿Zer da fedea?—ziotsan; eta nun billatuko det? Zela izuturik erori zan belauniko, eta egiñ zuan otoitz gizon aren alde. Ontzak *ujuju* are tristeagoak ateratzen zituen.

—Bigar ill bear badegu, gaur goza dezagun, esan zuen galayak basoko irteerara zijoala.

Zelak, bide erdian belaunikaturik, geraerazi zuen.—¿Nor zaitut?, galdetu zion gaiztoak, aren aurrean geldituaz, eta gero bere begi izutuak aurraren belarrian ezarriaz, esan zion berriz: Jainkoaren aingerua, indazu, indazu lepoan daramazun perla urdiñ ori, eta neretuko det ostera munduko bideeran galdu nuen fedea.

Zelak eskua eraman zuen bularrera, baña etzuen an perlik arkitu.

—Arzazu zerorrek nai badezu, erantzun zion, galayak zer esan nai zion ezagutu gabe. Orduan Zelak sentitu zuen gizon ark ateratzen ziola bularetik perla bat, zerua beziñ urdiña: sinitsgorrek eraman zuen bereala ezpañetara antsi aundiarekin, eta belaunikaturik, bedeinkatu zuen Jaungoikoaren izena. Ontzak, uju ikaragarria emanda, iges egiñ zuen andik, bere ego piñuakin airea kolpaltzen zuela.

Orduan ezagutu zuen Zelak fedearen aunditasuna.

Bitartean laño beltzak estali zuten lurbira ura. Zela ichumuka zi-joan bidean Aur misteriosoaren oñarrasto odolezkoen billan. Garrāsi triste bat belarrietaratu zitzyon, eta izuturik, azkartu zuen pausoa alde artara, Aurraren oñ arrastoak ere alde artan ikusten ziralako. Arkitu zan arkaitz baten kontra egiñdako chabola char baten aurrean. Neskachacho bat zegoen negarrez, buruchoa atalburuari arrimatuta.—¡Aurra, zergatik negar egiten dezu?—galdetu zion Zelak, berak ere negar egiñaz.—Aita ill zait, eta ez dit erantzuten,—erantzun zion aurrak bere negarrean segituaz.

Zela chabolan sartu zan, eta ikuskarri ikaragarri bat agertu zitzyon begien aurrean. Gizon batek gorputz ill berria zetzan lasto pilla baten gañean, bost aur chikiko negarrez inguruan, eta aren oapuruan eserita zegoen andreak zeukan beste aur jaro berri bat bere bular legortuetan. Penarekin ichuragabetuak zeuden arpegi aetan guzietan ikusi zuen Zelak, bera giatzen zuen Aurraren edertasunaren errañua; argatik begiak malkoz bete zitzaizkan, eragozten ziotela ikustea aren egoerak estalpe pobre artan egiten zuen mugida. Aurrak īsildu ziran, eta alargun pobrea auzpeztu zitzyon, Zelari esaten ziola:

—¿Nor zaitut?—¿benturaz zu zera nere senarraren Aingerua, ni konsolatzerā zatozkidana? ¡A! indazu perla gorri ori, zure bularrean chingar irazekiaren gisan distiatzen duen ori, eta nere umeak zer jana izango dute, eta nere pena ariñduko da, eta nere senarrak izango du betiko zoriona.

— Ori nere biotza, erremedia alba zinduzke, erantzun zion Zelak alargunari bularra aurkeztuaz.

Orduan alargunak kendu zion Zelari bularretik ikatz sutua zirudien perla gorri bat, bere argi distiatzalleakin chabola ere alaitu zuena.

—¿Zer gauz atsegiña dan Jaungoikoa gizonetan amatzea! esan zuen Zelak aurrari negar malkoak legortuaz, eta denbora berean zeruko argiak ezaguerazo zion aren animari karidadearen edertasuna.

Zelak chabolatik irten zanean segitu zuen bide chior bat, mendia-
ren sayetsetik aldapabeera zijoana. Aize bolada gogor batek lañuak bakandu zituen kondarrak geraturik itsatsiak arbol tartean miišazko soñeko puskak bezela. Arbolak geldi geldi ezkutatu ziran, erriberata-
ko ordeka zelayak eta mendietako berdetasuna geratu ziran atzean, ondarrezko eremu kabugabea zabaltzen zan alde guzietara suzko icha-
soaren gisan. Zebillen aize beroak asnasea estu erazitzen zuen, bai on-
darra alchaere zurrunbillan, noizean beñ chistu egiñaz kateturik da-
goen deabruaren gisan. Zelak sentitu zuen beregan antsia ikaragarriak
bere biotza estutu, eta egarri bizi biziak eztarria erretzen ziola. Eguer-
di aldean ikusi zuen urrutian zegoela arkaitz bat ondardian, eta palma
arbola aren itzalean.

—An billatuko det ura, esan zuen Zelak, bere indar guziakin
pausoa alde artara zuzenduaz. Au ordea zan aldapatsua eta berdura
bagea, eta arbola zegoen igartua Ebanjelioko piku madarikatua bezela.

Umezurtza, osotoro auldua erori zan ondardian, oyuska bat ema-
naz. Bulargañean bere eskuchoak gurutzatu zituen, eta iltzeko pres-
tatu zan.

—Jaungoikoagan sinisten det, Jaungoikoa amatzen det, eta Jaun-
goikoagan esperatzen det, zion eztitsu eta ortz tartean.

Ichura gaiztoko aitona zar bat irten zitzayon orduan arkaitz azpi-
ko zulotik, biurri begiratzen zuen, eta arpegian zeramazkian etsime-
nezko siñaleak gaiztakeriazkoakin batean. Soka bat zeukan eskuan,
eta bazirudien, arekin lepoa estutzeko prest zegoela.

—¿Nork esperatzen du Jaungoikoagan, beregan neretzat esperan-
tzarik ez bada?—esan zuen, bere begi zirauak alde guzietara jiratuaz.

—Jaungoikoagan esperatzen det! esan zuen Zelak itz are eztitsua-
goakin.

Alderatu zitzayon pekatari gogortu ura, eta sentitu zuen bere ba-
rrunbe guzia oi ez bezelako moduan mugitu zitzayola. Nai zuen negar
egiñ, eta ezin zuen, nai zuen birau egiñ, eta ezpañak etzituen mugitzen.

—Jaungoikoagan esperatzen det—esan zuen Zelak isilchorik zizpirua ziruditen itzakiñ.

Oyuska ikaragarri bat atera zitziyon azkenik barren barrendik aitonari;

—Zeruko aingerua, erregutu ezazu nigatik—esan zion, belaunikatzen zan bitartean. Zelak eraman zuen nekez eskua bularrera, eta erakutsi zion aitonari an distiatzen zuen perla berde ederra. Onek antsi aundiarekin artu zuen, eta laister aren begiak egin ziran bi iturri, bere eskuak pechu damutua kolpatzen zuten bitartean.

—¡Jaungoikoagan esperatzen det! azkeneko aldiz Zelak esan zuen. Eta aren animak, mundutik alde egiñ baño len, irichi zuen esperantzaren gozotasuna. Denbora berean agertu zitziyon sagarpean aurrenengo ikusi zuen Aur Jainkozkoa. Aren tunika zuriak distiatzen zuen eguzkiak bere indar guzian bezela, eta iru perlazko edergarriak oro bat bere bularrean. Aren eskuitik Hans Witek, Aurraren antzeko tunika zuri eta edergarriarekin luzatzen ziozkan besoak Zelari, eskerretik Groechenek, era berean jantzirik, kiñu egiten zion eskuarekin. Zerutarrak odei tartean asi ziran kantari esanaz:

Anima justuaren jantzia da

Fede, Esperantza eta Karidadea.

Aitona onera biurtuak, lurpetu zuen Zelaren gorputza palma arborelaren ondoan, eta arkaitzetik sortu zan iturri biziaren urak gordetzen zituen beti mardul obigañean elkarrekin azitzen ziran bioleta eta azuzena-loreak, garbitasuna eta umilltasuna aren animan elkarrekin asi ziran moduan.

MANUEL ANTONIO DE ANTIA.

(Traducido del Mensajero del Corazon de Jesús, correspondiente al mes de Setiembre de 1887.)

